

HELBURU DIDAKTIKOAK



Meatzaritza balio handiko sektore bat da Nafarroako ekonomiarentzat. Hala ere, gutxi ezagutzen da, eta, batzuetan, gai polemikoa izan daiteke.

Beraz, material honen helburu nagusia da ezagutzera ematea bai meatzaritzako sektorea, bai Nafarroarako duen garrantzia. Horretarako, ikasleei sektorearen balioa azalduko zaie honako eduki hauen bidez:

- Azaltzea nola funtzionatzen duen meatzaritzako zikloak eta zer garrantzitsua den ikerketa lana garatzea balizko baliabideei eta horien ustiapenari buruz, baita ustiatutako eremua ondoren lehengoratzeari buruz ere.
- Nabarmentzea zer erabilgarriak diren meatzaritzako produktuak, aditzera emanda gure eguneroko bizitzan dituzten mota askotako erabilerak eta aplikazioak.
- Nabarmentzea zer eginkizun duen meatzaritzako sektoreak Nafarroako ehun industrialean, berekin dakarren aberastasunagatik, sortzen dituen lanpostuengatik eta landa eremuetan biztanleak finkatzeko faktore garrantzitsua izateagatik.
- Ikasleen izaera kritikoa sustatzea, informazioa egiaztatzean nork bere iritzia eraikitzen lagunduta.

MINERÉTICA


Meatzaritzari eta mineralei buruzko jakintza hedatzeko ekimena.

Nafarroako meatzaritzari buruzko informazio gehiagorako:
mineria.navarra.es

Unitate didaktiko hau Galiziako Meatzaritza Ganberak sortutako materialetan oinarritzen da

IRAKASLEENTZAKO ESKULIBURUA EZAGUTU NAFARROAKO MEATZARITZA

BIGARREN HEZKUNTZA



ZER DA MINERETICA?

Meatzaritzari eta mineralei buruzko jakintza hedatzeko ekimen bat da. Horretan elkarrekin egiten dute lan, alde batetik, Nafarroako Gobernuo Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak eta, beste aldetik, Nafarroako meatzaritzako sektoreak. Honako hauek ordezkatzten dute meatzaritzako sektorea: **AEMINA** (Nafarroako Meatzaritzako Enpresa Elkarte), Nafarroako **AFARIME** (Agregakinen Fabrikatzaileen eta Meatzeetako Erauzketaren Industriaren Elkarte) eta arloko enpresa nagusiak.

MINERETICAren helburua da meatzaritzako sektoreak gizartean duen eginkizuna hedatzeko ekintzak gauzatzea, baliabide mineralak eguneroko bizitzan erabiltzen direla aditzera ematea, horretaz kontzientziatu eta sentsibilizatzea herritarrak, eta erauzketa enpresen onarpena eta haiekiko konfiantza areagotzea, baita horiek etorkizun jasangarriak duten garrantzia erakustea ere.

SEKTORE ESTRATEGIKOA

Baliabide geologikoak dira lurretik zuzenean erauzten diren ondasun natural guztiak. Jabari publikoko materialak ditugu, gure aberastasunaren zati direnak, eta lehengai erabilienak dira industriaren zati handiengan, energiarenekoizpenean eta eraikuntzan.

Nafarroako meatzaritzak modu **ARRAZOIZKOAN, ORDENATUAN ETA ERAGINKORREAN** ustiatu behar ditu baliabideak, ingurumenari ahalik eta inpaktu txikiena eragiteko. Askotan, baliabideen ikerketa eta ustiapena onura publikokotzat jotzen dira, eragin handia baitute enplegu sorreran eta jarduera ekonomikoan. Ekimen pribatuak gauzatzen ditu jarduera horiek, emakiden edo baimenen bidez eta Administrazioaren ikuskapen eta kontrol zorrotzen pean.



HARTZAILEAK

Jardueren hartzaileak Bigarren Hezkuntzako ikasleak dira.



UNITATE DIDAKTIKOAREN DESKRIBAPENA



Asmoa da sektoreari buruzko irudi modernoa eta errealista ematea material didaktiko honen bidez, eta irakasleei eduki eta jarduera batzuk eskaintzea, ikasleei meatzaritzaren gainean duten ikuspegi akademikoa osatzen lagunduko dietenak eta ikasgeletan eztabaida piztuko dutenak. Arrokak eta mineralak ezinbestekoak dira mundu modernoan, eta, horiek egon gabe, ongizatearen gizartea, gurea, ezinezkoa izanen litzateke. Arrokak eta mineralak baloratzen ikastea eta horiek erabiltzeko erauzi egin behar direla ulertzea funtsezkoa da sistema jasangarria izan dadin epe luzera, hurrengo belaunaldien etorkizuna arriskuan jarri gabe.

Nafarroak ibilbide historiko garrantzitsua du meatzaritzako jarduerari dagokionez. Arrokak eta mineralak ezinbestekoak dira mundu modernoan, eta, horiek egon gabe, gure gizartea ezinezkoa izanen litzateke. Arrokak eta mineralak baloratzen ikastea eta horiek erabiltzeko erauzi egin behar direla ulertzea funtsezkoa da sistema jasangarria izan dadin epe luzera, hurrengo belaunaldien etorkizuna arriskuan jarri gabe.

Nafarroan, meatzaritza jarduera jasangarria da, ekonomia zirkularren printzipioak kontuan hartzen dituena. Meatzaritzako erauzketa ez da oztopo bat ingurumena kontserbatzeko, eta aukera bat ere izan daiteke. Meatzaritzak lurlean eragindako aldaketei esker, ekosistema berriak sortzen dira (adibidez, hezeguneak edo labarrak), espezie berriak finkatzea eta biodibertsitatea areagotzea ekar dezaketenak.